

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

 Epai Digitala

Kanpoko gonbidatuak

Aurkibidea

Sarrera	3
Epaiketa/jarduketa birtual batera sartzeko mekanismoak	3
Betekizunak	3
Webex konexiorako oinarrizko testa	4
Nola sartuko gara epaiketa/jarduketa birtual batera?	4
Ordenagailuko Webex App aplikaziotik sarrera	5
Posta elektronikoan jasotako gonbidapenetik sarrera	5
Web interfazea erabiliz sartzeko	6
Web interfazetik sartzeko	8
Posta elektronikoan jasotako gonbidapenetik	8
Justizia.webex.com webguneko interfazetik zuzenean	9
Android edo iOS gailutik sartzeko	11
Bideokonferentzia-ekipoa erabiliz sartzea	16
Bilkurara sartzeko aurretiko leihoa	17
Edukia partekatu	19

Sarrera

Eskuliburu honen helburua **EpaiDigitala** ezagutaraztea da, epaiketa eta jarduketa birtualak egiteko Webex tresnan oinarritzen dena. EpaiDigitala bidez jarduketa edo epaiketa birtual batera gonbidatuak izan diren **EAEko Justizia Administrazioetik kanpoko pertsona gonbidatuei** dago zuzendua.

Jarraian, informazio laburbildua emango da, [esteka](#) honetan Webex tresnako dokumentazio osoa eta eguneratua eskura daiteke.

Epaijeta/jarduketa birtual batera sartzeko mekanismoak

Epaijeta/jarduketa birtual batera gonbidatu gaituztenean, bertara sartzeko hainbat mekanismo ditugu erabilgarri:

- PCrako Webex App aplikazioa
- Web interfazea
- Android edo iOS gailua
- Bideokonferentziako ekipoa

Sarbide-metodoa gonbidapena jasotzean hautatu ahal izango da eta gonbidapena irekitzeko gailuaren araberakoa izango da.

Betekizunak

Hauek dira EpaiDigitalera sartu eta epaijeta/jarduketa birtual batera konektatzeko gutxieneko betekizunak:


- Internet sarbidea duen gailu bat izatea
- Kamera eta mikrofona

[Esteka](#) honetan betekizun horien gaineko xehetasun eguneratuak ematen dira.

Webex konexiorako oinarrizko testa

Epaiketa/jarduketa birtual batera gonbidatu bagaituzte eta Webex sekula erabili ez baldin badugu, proba bat egiteko aukera dugu gure gailutik Webex bilkura batera arazorik gabe konekta daitekeela ziurtatzeko.

Horretarako <https://www.webex.com/test-meeting.html> helbidean proba egiteko web-orrialde bat dago. Bertan, izena eta helbide elektronikoa sartu ondoren, proba-bilkura batera sar gaitzke. Hor gu izango gara gonbidatutako pertsona bakarra.



“JOIN” botoia sakatzean proba-bilkuran sartuko gara gure Webex aplikazioaren bidez.

Nola sartuko gara epaiketa/jarduketa birtual batera?

Epaiketa/jarduketa birtualaren informazioarekin posta elektronikoko bat jaso baldin badugu:



Bilkurara konektatzeko “Bilkurara batu” edo estekaren gainean sakatuko dugu.


Helbide elektronikorik izan ez, baina bilkuraren kodea eta pasahitza baldin baditugu, orrialde honetan sartzeko aukera izango da: <https://justizia.webex.com/> eta bilkuraren kodea eta pasahitza sartu beharko dira.

Ordenagailuko Webex App aplikaziotik sarrera

Kasu honetan, Webex App aplikazioa ekipoan instalatuta egongo da. Sartzeko bi modu daude: posta elektronikoan jasotako gonbidapenetik edo Web interfazearen bidez.

Posta elektronikoan jasotako gonbidapenetik sarrera


Honen antzeko itxura izango duen gonbidapen bat izango dugu.



“Bilkurara batu” edo “estekaren” ganean sakatuko dugu bilkurara sartzeko prozesua abiarazteko. Sakatzean beste erlaitz bat irekiko da nabigatzailean eta zera ikusiko dugu.



Webex APP aplikazioa instalatuta dugunez, mezu hau ikusiko dugu



“Webex ireki” edo “Bilkura hasi” sakatzean Webex App irekiko da, eta bi gauza gertatu ahal dira:

- a) Bilkuran sartzeko identifikazio-datuak eskatuko dira.



Gure identifikazio-datuak sartu eta “Gonbidatu modura batu” sakatuko dugu.



Aurretiko sarbidearen leihoan sartuko gara.

- b) Ez dira identifikazio-datuak eskatzen (jadanik konektatu gara aldez aurretik Webex bilkura batera).

Kasu horretan, **bilkurara sartzeko aurretiko leihoa** ikusiko dugu zuzenean:

Web interfazea erabiliz sartzeko

Posta elektronikoan gonbidapen mezua jaso ez baldin badugu, baina sarbide-kodea zein den baldin badakigu, nabigatzailearen bidez <https://justizia.webex.com/> helbidean sartu eta sarbide-kodea sartuko dugu.



Ondoren pasahitza adierazten da:



Pasahitza sartzean, zuzena baldin bada, pantaila hau ikusiko da.



“Bilkurara batu” sakatzean bilkurara sartzeko edo aplikazioa deskargatzeko pantailara sartuko gara.

Haga clic en **Abrir Webex** en el mensaje.
Si no aparece el mensaje, haga clic en **Iniciar reunión** en su lugar.

Iniciar reunión


¿No dispone de Webex? [Descárguelo ahora.](#)

¿Tiene problemas con la aplicación? [Únase desde el navegador.](#)


Web interfazetik sartzeko

Posta elektronikoz jasotako gonbidapenetik

Honen antzeko itxura izango duen gonbidapen bat izango dugu.



“Bilkurara batu” edo “estekaren” ganean sakatuko dugu bilkurara sartzeko prozesua abiarazteko. Sakatzean beste erlantz bat irekiko da nabigatzailean eta zera ikusiko dugu.



Nabigatzailetik Batu aukera hautatuko dugu.




Ekintza hori burutzean gure identifikazioa osatzeko pantaila bat agertuko zaigu.

“Hurrengoa” sakatu ondoren “Bilkurara sartzeko aurretiko leihoa” ikusiko dugu.

Justizia.webex.com webguneko interfazetik zuzenean

Postaz ez badugu gonbidapena jaso, baina bilkuran sartzeko kodea zein den baldin badakigu




Adierazi bilkuraren pasahitza

webex

Para  justizia



Español de España




Para ver más información sobre la reunión, introduzca la contraseña de la reunión.

Número de reunión: 2732 560 5474


Introduzca la contraseña de la reunión

Aceptar


“Onartu” sakatzean, pasahitza zuzena baldin bada, beste erlantz bat irekiko da nabigatzailean eta zera ikusiko dugu.




“Bilkurara batu” zabalgarria sakatzean Web nabigatzailearekin soilik sartzeko aukera hautatu daiteke.



Aukera hori hautatuta izanda Bilkurara batu sakatzean zera agertuko da:



Hurrengo pantailan adierazi ditzakezu identifikatzeko izena eta helbide elektronikoa.

A registration form for EpaiDigitala. At the top is a blue and green logo consisting of two interlocking loops. Below the logo is the text "Introduzca su información" (Enter your information). There are two input fields: the first is labeled "Nombre" (Name) and contains the text "Abogado Demandante Nombre Apellido"; the second is for an email address and contains "test@gmail.com". Below the fields is a black button with the text "Siguiete" (Next). Underneath the button is a link: "¿Ya tiene una cuenta? [Iniciar sesión](#)". At the bottom, it says "Más formas para iniciar sesión" (More ways to log in) and shows three social media icons: Google, Microsoft, and Facebook.

“Hurrengo” sakatzean “**Bilkurara sartzeko aurretiko leihoan**” sartuko gara zuzenean.

Android edo iOS gailutik sartzeko

Posta elektronikoz jasotako gonbidapena ireki



“Bilkurara batu” edo “estekaren” ganean sakatu bilkurara sartzeko prozesua abiarazteko.

Webex Meetings aplikazioa instalatuta ez baldin badugu gure telefonoko Web-nabigatzailearekin irekitzeko eskatuko zaigu



Une horretan Webex Meetings aplikazioa instalatzeko eskatuko zaigu.



Deskargatu sakatzean instalatzeko prozesua abiaraziko da.




Behin Webex Meetings instalatuta, “Ireki” sakatzean “Erabiltzeko baldintzak Onartu” eskatuko zaigu.





Eta ondoren, bilkura honetan eta hurrengo bilkuretan gure burua identifikatzeko aplikazioak erabiliko dituen izen bat eta helbide elektronikoa bat adierazteko eskatuko zaigu.



Behin “Onartu” sakatuta **“Aurretiko sarbiderako pantailan”** sartuko gara.


“Webex Meetings” aplikazioa instalatuta baldin badugu, “Bilkurara batu” edo posta elektronikoz jasotako gonbidapenean adierazitako estekan sakatzean aukera ugari ikusiko ditugu.



“Webex Meet” hautatuz gero **“Aurretiko sarbiderako pantailan”** sartuko gara zuzenean. Identifikatzeko erabili ditugun izena eta helbide elektronikoa ez zaizkigu eskatuko, izan ere, instalazioan zehar adierazitakoa erabiliko da.


Audioa eta bideoa egiaztatzea “Aurretiko sarbiderako pantailan”

Aurretiko sarbiderako pantailan bilkuran sartu aurretik audioa eta bideoa konfiguratzeko aukera emango zaigu. Une honetan oraindik ez gaude bilkura barruan.




Audioa konfiguratzea

Bilkuran isilean edo mikrofonoa irekita sartzea.



Isilean




Mikrofonoa irekita


(barnean eduki berdea mugitzen baldin bada, gure mikrofonoko audioa hautematen duela esanahi du).

Bideoa konfiguratzea

Bilkuran kamera aktibatuta edo desaktibatuta sartzea.



Kamera desaktibatuta.




Kamera aktibatuta.

Litekeena da aplikazio hau erabiltzen dugun lehen aldian gure kamera erabiltzeko baimena eskatzea, ezinbestekoa izango da erabilera baimentzea.



Bilkurarako azken sarrera Android edo iOS gailuan

Sakatu "Batu" bilkuran sartzeko.



Behin bilkuran sartuta, bilkura birtualeko ingurunerako sarbidea izango da.

Litekeena da aplikazioa lehen aldiz erabiltzen denean, lehendabiziko bilkuraren hasieran, aplikazioak baimenak eskatzea kamerara eta mikrofonora sartzeko berriro.

Bideokonferentzia-ekipoa erabiliz sartzea

Epaketa/jarduketa birtual batera bideokonferentziako ekipoak erabiliz sartzeko aukera izango da.

Horretarako, nahikoa izango da gonbidapenean ematen den informazioa erabiltzearekin. Adibidez:

Unirse desde una aplicación o sistema de vídeo

Marcar 27325202295@justizia.webex.com

También puede marcar 62.109.219.4 e introducir su número de reunión.


Bilkurara sartzeko aurretiko leihoa

Bilkura batean sartu baino lehen, aldeztu aurretik audioa eta bideoa konfiguratzeko aukera emango duen leiho bat ikusiko dugu. Une honetan oraindik ez gaude bilkura barruan.


Audioa konfiguratzea

Bilkuran nola sartu nahi dugun zehazteko aukera izango dugu:

Isilean (inork ez gaitu entzuten)




Mikrofonoa irekita



Mikrofonoaren barnean eduki berdea mugitzen baldin bada, gure mikrofonoko audioa hautematen duela esanahi du.


Erabili nahi dugun audio-gailua hautatzeko nahikoa izango da adierazitako ikonoan sakatu eta zabalgarrian erabili nahi dugun gailua hautatzearekin.




Bilkuran sartu aurretik proba bat egin nahi baldin bada, “Bozgorailu eta mikrofono proba” hauta daiteke.

Bideoa konfiguratzea

Bilkuran sartzeko modua adierazteko aukera izango dugu:




Kamera desaktibatuta.



Kamera aktibatuta.

Erabiltzeko kamera hautatzeko aukera izango da



Bilkurarako azken sarrera

“Bilkurara Batu” sakatuko dugu bilkuran sartzeko.



Epaiaretoan fisikoki dauden gailu edo eramangarriek soinua eta mikrofonoa desaktibatuta izan behar dituzte akoplatzeak ekiditeko.


Edukia partekatu

Jarduketa digital batean dokumentazioa aurkeztu behar badugu, komeni da kanpoko biltegiragailuan (pendrivean edo antzekoan) dokumentuak digitalizatuta eramatea .


Gainerako parte-hartzaileekin edukia partekatu nahi baldin badugu (gure ekipotik irisgarri), Partekatu ikonoa hautatuko dugu.

Ondoren, **Leihoa** hautatuko dugu agertzen zaizkigun aukeren artean eta pantaila guztia edo dagokion dokumentuko edukia soilik partekatzeko aukera izango dugu.

- **Pantaila partekatzea:** bilkurako parte-hartzaileek partekatzen duen pertsonaren ekipoko idazmahai osoa ikusiko dute, hots, ordenagailuan irekita dagoen guztia.



- **Aplikazioa partekatzea:** hasi aurretik ezinbestekoa da ikusarazi nahi den dokumentua irekitzea parte-hartzaile guztiek ikusi ahal izan dezaten. Behin dokumentua irekita dugunean, Webex aplikazioko leihoan partekatzeko dokumentua hautatuko dugu.



Behin partekatu nahi den hori hautatuta, “Partekatu” sakatuko dugu berriro, gainerako parte-hartzaileek ikusi ahal izan dezaten.



Une horretan, **partekatzen duenak** Webex aplikazioaren kontrolak ikusiko ditu bere ekipoaren goialdean.



Partekatzeari uzteko “Gelditu...” hautatuko dugu



Edukia beste pertsona batek partekatzen duenean lehen planoan partekatutako informazioa ikusiko dugu eta pertsonen irudiak goialdean.

